# Gizarte zibilaren ahotsa Euskal Herrian. Eragile berriak eta gizarte aldaketa milurteko berriaren atarian/ La voz de la sociedad civil en Euskal Herria. Nuevos actores y cambio social en el umbral del nuevo milenio

(The voice of civil society in the Basque Country. New actors and social change on the threshold on the new millenium)

Insausti, Mikel
Trade of Investment Policy Coordinator
WWF European Policy Office
17 Rue St. Boniface
1050 Bruselas

*Sail honetako testuek ibilera zoragarria moldatzen dute euskal gizarte zibilean eta horren osagai diren gizarte eta herri mugimenduetan zehar. Euskal Herriko gizarte mobilizazioaren ziklo historikoen azterketa abiaburu harturik, milurte berriaren atariko euskal gizarte zibilak aurre egin beharreko erronka eta zailtasunen argazkia eskaintzen dute, gaurkotasunez betea, bai eta etorkizunari begira gizarte zibil horrek dituen baliabide eta aukeren diagnostikoa eman ere.*

*Giltza-Hitzak: Gizarte zibila. Herri mugimenduak. Ingurumena. Garapenaren aldeko lankidetza. Baztertze soziala. Lana. Gizarte aldaketak.*

*Los textos que componen esta sección trazan un recorrido apasionante a través de la sociedad civil vasca y los movimientos sociales y populares que la conforman. Partiendo de un análisis de los ciclos históricos de movilización social en Euskal Herria, se ofrece una fotografía de plena actualidad sobre los retos y dificultades que afronta la sociedad civil vasca en el umbral del nuevo milenio, así como un diagnóstico de los recursos y potencialidades con la que cuenta ésta de cara al futuro.*

*Palabras Clave: Sociedad civil. Movimientos populares. Medio ambiente. Cooperación al desarrollo. Marginación social. Trabajo. Transformaciones sociales.*

*Les textes qui composent cette section tracent un parcours passionnant à travers la société civile basque et les mouvements sociaux et populaires qui la composent. En partant d'une analyse des cycles historiques de mobilisation sociale en Euskal Herria, on présente une photographie d'actualité sur les défis et les difficultés qu'affronte la société civile basque au seuil du nouveau millénaire, ainsi qu'un diagnostique des ressources et des potentialités sur lesquelles compte cette société civile face au futur.*

*Mots Clés: Société civile. Mouvements populaires. Environnement. Coopération au développement. Exclusion sociale. Travail. Transformations sociales.*

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 459-467. - ISBN: 84-8419-949-5.

## HITZAURREA

Kongresuko 3. Sailean aurkeztutako testu eta txostenak ibilbide erakargarria deskribatzen dute euskal gizarte zibilean eta horren osagaiak diren gizarte eta herri mugimenduetan barna. Euskal Herriko gizarte mobilizazioaren ziklo historikoen azterketa bat abiaburu harturik, milurteko berriaren atarian euskal gizarte zibilak aurre egin beharreko erronka eta zailtasun horien gaurkotasun handieneko argazkia eskaintzen da lan hauetan, bai eta etorkizunari begira dituen baliabide eta ahalmenen diagnostikoa ere.

Hemen bilduriko txostenak ez dira abstrakziozko ariketa teoriko baten ondorioa, baizik eta gizarte aldaketa lortzeko asmoz hainbat eremutan lan egin eta militatzen duten gizarte eragileen beraien ahots bizia, eremu horiek anitz direlarik: ekologismoa, nazioarteko elkartasuna, gizarte bazterketa eta pobreziaren aurkako borroka, lana izateko eskubidea, feminismoa, bakezaletasuna, euskara, gatazka politikoa gainditzea, etab. 2000 eta 2001 urteetan, bederatzi lan taldek bilera-segida bat egin dute, gizarte aldaketaren hainbat alderdiri buruz eta euskal gizarte zibilak horretan duen eginkizunaz. Lan talde bakoitzaren gogoetak eta iritsitako ondorioak dira koordinatzaileek txostenak osatzerakoan erabili duten lehengaia. Guztira, 90 pertsona baino gehiagok parte harte dute eztabaida prozesu honetan, eta hori, zalantzarik gabe, argitalpen honen aktibo nagusia dugu –txosten bakoitzaren hasieran eztabaida ekitaldietan parte hartu dutenen zerrenda ematen da.

Gizarte zibilaren eginkizunari buruzko eztabaida, zalantzarik gabe, gaurkotasun handieneko gaia da. Eta ez bakarrik antiglobalizazio mugimenduak komunikabideen aldetik jasotzen ari diren arreta izugarriagatik, munduko botere ekonomiko nagusiak non bildu eta han agertuko baitira prentsa mutilak, bidelagun. Baizik eta munduko ordena aldi berrian sartzen ari delako hipotesiagatik, eta hori gero eta errealagoa da: gizarte zibil global bat sortzen ari baita, oraindik egituratu gabea, baina enpresa multinazionalak eta nazioz gaindiko kapitala metatzen ari diren botere eskerga orekatzeko gai izango litzatekeena. Ildo horretatik, egungo munduko eredu ekonomikoaren aurka Seattle, Washington, Praga, Gotenburg eta Genoan egindako manifestazioak, besteak beste, kontzientzia herritar global eta kolektibo baten piztea litzatekeenaren lehen alarma-hotsak izan dira –nahiz eta guzti hori, gaur egun, ikustekoa den oraino.

Euskal Herria ez da prozesu globalizatzaile horretatik kanpo, eta ondorioz, ez da gure gizartean eta gure Europako inguruan nagusitzen ari diren kultura homogeneizazio eta uniformizaziotik, gora doan kontsumismo eta indibidualismotik aparte geratzen. Joera horien aurrean, euskal gizarte zibilak komunitateen autogestioa erreibindikatzen du, behetik gora, hala eremu ekonomikoan nola kulturalean. Bertako, tokikoaren aldeko apustua egitea, egiatan, globalari egin dakiokeen ekarpen onena izan dalteke, pluraltasunetik eta mestizaia anitzari zabalik egonik.

## Euskal gizarte zibilaren ziklo historikoak...

Dena den, galderak egitea ere badago. Zer ulertzen dugu gizarte zibilez? Zerk edo nork osatzen dute hori, eta zerk edo nork ez? Non hasi eta non amaitzen dira horren mugak? Galdera horien bidez, Iñaki Barcenak egokiro kokatzen du horren ibilbidearen abiapuntua, Euskal Herriko gizarte zibilaren historiaren bitartez. Euskal gizarte zibila, harentzat, aginte politikotik eta merkatutik bereizirik, euskal esfera publikoan diharduten gizarte elkarte eta mugimenduen multzoa da. Aro frankistaren amaiera abiaburu harturik, hiru ziklo nabarmentzen ditu gizarte mobilizazioan, azken hiru hamarkadako euskal gizarte zibilaren ezaugarriak azaltzerakoan.

Lehen zikloa 70eko hamarkadan hasi zen, eta erregimenaren aurkako borroka eta mobilizazioak izan ziren haren ezaugarriak; orduan, protesta era ugari eta gizarte mugimenduen aukera zabala agertu zen publikoki. Ondoko zikloan, 80. urteetan jadanik, gizarte zibilak jokaleku berri batera egokitu behar izan zuen, bai ekonomiaren alorrean (industriaren krisia eta eraispena) bai eta politikaren alorrean ere (erakunde eta agintari autonomikoen agerpena). Ziklo horretan gizarte zibilaren eduki ideologikoak ahulduz joan ziren, eta haren barnean gero eta espezializazio handiagoa gertatu zen. Hirugarren zikloak, azkenik, 90eko hamarkadan, euskal gizarte zibilaren berregokitze sakona ekarri zuen, hala antolamenduari dagokionez nola gizarte ekintza moldeetan ere. Zenbaitentzat, aldi berri honek 70. urteen erdialdean abiaturiko ziklo mobilizatzailearen amaiera ekarri du. Hona egoera berriaren ezaugarriak: ideologia eta antolamendu aniztasun handiagoa, sare eta lotura horizontalak finkatzea, eta gizarte zibileko talde eta mugimendu desberdinen arteko lana eta ahalegina.

## ...eta gizarte zibilaren ahotsa Euskal Herrian: gizarte erabileen autodiagnostikoa

Ondoko txostena aurrean azaldu ibilbide historikoa amaitzen den puntuan abiatzen da: gaur egungo euskal gizarte zibilaren osasunari buruzko autodiagnostikoa eginez. Herrialde bakoitzean bertako lan taldeek egindako diagnostikoak abiaburu harturik, Mario Zubiagak gizarte eragileek berek beren buruaz, gainerako gizarteaz eta aktibismo sozialaren bidez aldatzen saiatzen diren errealitateaz duten ikuspegiaren sintesia moldatu du. Hartarako, funtsezkoa gertatu da herrialde bakoitzaren gizarte mugimenduen arteko elementu komunak eta bereizgarriak ulertzea, eta hori egin ahal izan da bost lan taldetan –bana herrialde bakoitzeko (bakarra Iparraldean)– bilduriko berrogei pertsonaren partaidetzari esker. Txostenean nabarmentzen dira gizarte zibilaren dinamismoaren faktore erabakigarriak herrialde bakoitzean: abertzaletasunaren ezartze desberdina, egoera sozioekonomiko txarraren mailak, eta hiriburuen egitekoa eta garrantzia herrialde bakoitzaren barrutian.

Bestalde, euskal gizarte eragileek jarrera kritikoa hartzen dute errealitatearen aurrean, eta gizar-

tea aldatzeko xedeak agertzen dituzte denek, elkar bizitze eta gizarte eredu alternatiboen mesedetan, zeintzuk partaidetzan, elkartasunean eta justizian oinarritzen dituzten. Haien arteko elementu komunetariko bat zera da, behetik modu eraginkorraz eta gizarte ekintza zuzenaren bitartez –delegazionismoan erori gabe– jardutearen uste osoa. Nabarmentzekoa da nola egiaztatzen den gaur egungo euskal gizarte zibila, izan den mobilizatuena ez izanik ere, zalantzarik gabe, Euskal Herriko historiaren aberatsena eta anitzena dela. Horregatik, agian, txosten hau euskal gizarte zibilaren alderdi ideologikoak atzematen eta islatzen salatzen da, beraren hainbat sektore eta esparru desberdinetatik defendatzen diren gizarte, ekonomia, politika eta kultura ereduei dagokienez. Txostenak aditzera ematen duenez, badira aldeak euskal gizarte zibilak eredu horiek herrialde bakoitzean planteatzeko eran, baina agerikoa da, baita, bat etortzeak desadostasunak baino gehiago direla, gutxienez ekonomia, gizarte, politika eta kultura alorretako aldakuntza bideratu behar duten printzipio eta balioei dagokienez.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxienekoa, gizarte mobilizazioaren azpian diren eta bera ahalbidenen duten arazoei heldu die euskal gizarte zibilaren diagnostikoak, konplexurik gabe: gizarte ekintzaren gai zaila, horren moduak, antolakuntza baliabideak eta antolaketa ereduak. Puntu honetara iritsiz gero, txostenak modu sistemakoz ebaluatzen ditu gizarte zibila Euskal Herrian osatzen dituzten mugimenduen eta taldeen gabeziak, baliabideak eta ahalmenak, eta eztabaidari begira, aditzera ematen eta planteatzen ditu etorkizun hurbilean aurre egin beharreko arazo eta erronka nagusiak.

## Globaletik sektorialera

Hurrengo lau txostenek Euskal Herriko gizarte zibilaren sektore edo eremu jakin bati dagokion gogoeta espezifikotik abiatzen dira. Hurrenez hurren, honako gai hauei ekiten diete: ingurugiroaren arazoak eta euskal mugimendu ekologista, nazioarteko elkartasuna eta garapenarekiko kooperazio mugimendua, integrazio prozesuak eta gizarte bazterketa, eta lanaren etorkizuna Euskal Herrian. Lau gizarte jarduera eremuotan arreta jartzeak gogoeta sakona eragin du euskal geografia guztian gizarte talde eta mugimenduetan diharduten pertsona multzo batengan, nahiz eta, esan beharra dago eta, Iparraldea gutxiago ordezkatua izan. Txosten bakoitza, gaien araberako lau lan taldeetan izandako eztabaiden emaitza da, dagozkien koordinatzaileek laburturik.

## Ingurugiroa eta gizarte zibila Euskal Herrian...

Ingurugiroaren arazoa Euskal Herrian eta euskal mugimendu ekologistaren eginkizuna, Jose Allendek koordinaturiko lan taldearen gogoetaren helburua-izan bada ere, Garapen Eramangarriaren marko zabalagoan kokatu dute eztabaida. Hala eta guztiz ere, altortu egiten da bai "corpus politikoaren" aldetik eta bai ingurugiro-ekologia mugimenduaren beraren aldetik, Garapen Eramangarria kontzeptuak interpretazio nahasi eta ekibokoak izaten jarraitzen duela, eta hori konpondu beharko litzateke lorpen horretan aurrerakearren.

Natura ingurune eta ingurugiroaren kontserbazioan, euskal mugimendu ekologistak aurre egin beharreko arazo handiak banan-banan xehatuz joan dira, eta eztabaida bizietan tratatu: antolaturiko gizarte zibilarekin elkarrizketa-bide iraunkorrak ezartzerakoan, politikariek eta erakundeek azaltzen duten ezintasun kezkagarria; euskal "familia" ekologista nagusien arteko desadostasunak; euskal mugimendu ekologistaren erakundetze erlatiboa; Euskal Herriko arazo politikoak ingurugiro kontuetan duen eragin handia eta gatazkak argitu eta konpontzeko dakartzan zailtasunak; eta Administrazio Publikoek ingurugiro arazoari ematen dioten tratamendu barreiatua, ingurugiroari buruzko informazioan eta kontzientziazioan burutzen duten lan eskasarekin batera.

Ingurugiroarekin konprometituriko jendeak osatzen duen talde honetatik aldarri nagusi bat jalgi eta nabarmendu da: onbideratze demokratikoaren aldeko prozesu bat ezartzeko premia, herritarren parte hartzeari dagokionez, gune publikoak eta, oro har, ingurugiroa ukitzen dituzten erabakietan. Ingurugiro-ekologia arazoarekiko bereziki sentikorrak diren gizarte zibileko sektoreen eta erakundeen artean gertatzen den lehiak topaleku, elkarrizketa eta adostasun bide berriak eskatzen ditu. Hartarako, taldeak partaidetza tresna eta bide berriak abiatzea proposatzen du txostenean. Bakarrik elkarrizketan, adostasunean eta negoziazioan oinarrituriko kultura batetik hautsi ahal izango da oraingo elkarren aurkako dinamika, gorren arteko solasa dirudiena.

## ...nazioarteko elkartasunaz eta garapen gizatiar eta eramangarriaren aldeko kooperazioaz

Ba ote da nazioarteko finantza merkatuen eta neoliberalismoaren diktadurak ezarritako globalizazio ereduaz besterik? Koldo Uncetak koordinaturiko lan taldeak ez du horretaz inolako zalantzarik, eta giza eskubideen eta elkartasunaren unibertsalizazioaren alde agertzen da. Modu bikainean idatziriko txosten honek egungo Euskal Herriko elkartasun eta kooperazio mugimenduaren iturburuetara jotzen du; gero, gaur arterainoko bilakaera arakatzen du, eta aldi berean gogoeta egiten du azken hamarkadetan garapen, pobrezia eta desberdintasunaren ideia konbentzionalek izan dituzten erabateko aldaketez.

Lan taldeak elkartasunaren etika berria sortzeko premia planteatzen du txosten honetan. Halako etikak oinarrizko erreferentzia batzuen aldeko apustu garbia egin beharko luke: garapen gizatiarra eta eramangarria, giza eskubideak eta horien babesa, eta orain agertzen ari den herritartasun unibertsalaren nozioa. Txostena, alabaina, askoz haratago doa;

elkartasun eta kooperazio mugimenduen autokritika egiten du eta egun aurre egin behar dieten arazoak gainditzeko klabeak planteatzen ditu. Horien artean, mugimendu solidarioaren legitimazioaren arazoa da nabarmentzekoa, hein handi baten bere diskurtsoaren ahuldadearen eta argudio mugatuen ondorioz, geroago erakustera ematen denez.

Txostenak, orobat, hainbai gai ukitzen ditu: gizarte eragileen eginkizuna, garapenerako politika publikoen eragina, elkartasunaren erronka berriak globalizazioaren testuinguruan, eta elkartasunaren aldeko mugimenduaren proiekzioa eta eragin soziala. Lan taldeak, azkenik, Euskal Herriko elkartasun eta garapenaren aldeko kooperazio mugimenduaren etorkizuneko bilakaera zehaztuko duten klabeak aipatzen dituzte, hots, hainbat eztabaidari aurre egiteko gaitasunari dagozkionak: bere identitateari buruzkoa, botere ekonomiko eta politikoekiko independentziari buruzkoa eta gizartearen baliabide solidarioak mugiarazteko trebetasunari buruzkoa.

## Gizarte integrazio eta bazterketa prozesuak Euskal Herrian...

Beren egileen hitzetan, txosten hau ezin gaindituzko kontraesanetik sortu da, zeren eta, “bazterturiko” pertsona eta taldeekin lan egiten badute ere, txostena burutu duten pertsonak “integratuen” mundukoak baitira. Horrek ez du galarazten txosten hau Euskal Herriko gizarte bazterketaren inguruko eztabaida bideratuko duen baliabidea aberatsa ez izatea. Hartarako, hala Euskal Herrian nola Europa osoan, gertatzen ari diren desberdintasun eta gizarte bazterketa prozesu berriak beren testuinguruan ezartzea ahalbidetzen duten historia eta egitura aldaketen azterketa batetik abiatzen da Txus Congilek koordinaturiko lan taldea. Lan talde honek, gainera, prozesu horien kausez eta faboratzen dituzten faktoreez gogoetatzen du, euskal gizarte zibilaren beraren eragile ezberdinek ere ematen duten diagnostiko berera hurbiltzen delarik.

Taldearen iritziz, gizarte bazterketaren arazoari eman beharreko konponbideak ezin aurkituko dira egun nagusi den logika ekonomikoaren barnean –paradigma kapitalistaren barnean–, zeren eta sistema bera baita gizarte bazterketa sortarazten duena. Aditzera ematen dutenez, gizarte desberdintasunen aurka lan egiteak sakoneko arazo politikoa dakar, botere ekonomiko nagusiek ezartzen dizkiguten eskasiak, langabeziak eta gizarte bazterketak ez baitute irtenbiderik globalizazioan, homogeneizazioan eta gizatasuna ezabatzen duen prozesu honetan.

Modu horretara, sistemaren logikatik ateratzeko eta aldaketa sakonak proposatzeko premia planteatzen da, ekonomia, bizikidetasun eta pertsonen zein taldeen harremanen ereduei dagokienez, erabat aldatuz gizarte bazterketaren kausak eta faktoreak. Hori lortzearren, bereziki, bazterturiko sektoreen antolaketa eta kontzientzia proposatzen da, bai eta herri mugimenduen eta gizarte zibilaren konpromiso eraginkorra ere. Baina integrazio prozesu positibo, aktibo eta kritikoetan sakontzeko proposamenak ez dira hor ahitzen. Taldeak, gainera, aniztasuna errespetatzea, desberdintasunak orekatzea, integrazioa bidera dezaketen balioak, jarrerak eta portaerak eraikitzea proposatzen du, hori guztia euskal gizartean denok eskubide osoko herritar askeak izan gaitezen.

## ... aukera berrietarantz lanaren etorkizunean?

Soldatapeko lan tradizionala nagusi den lan ereduaren garaiaren amaieran ote gaude? Agian ez, erantzuten du Imanol Zubero eta Arantza Rodriguezek koordinaturiko lan taldeak, baina bai lanaren berrantolaketa prozesu sakon baten aurrean gaudela, non lan egonkortasunik eza eta enpleguaren gizarte arauarekiko haustura nabarmentzen diren, nahiz eta historian zehar enpleguak gizarte integraziorako oinarrizko elementu gisa izan balio izan duen. Gizarte mailan, lanaren errotiko aldakuntza horrek eraman ditu zenbait pentsalari iragarpen hau egitera: etorkizunean, bai ekonomia bereziki dinamikoa eta bai gizarte gero eta hauskorrago eta ezegonkorragoa gertatuko dira aldi berean. Gizabanakoaren planoan, norberaren destinoaren eraikuntzan lanak duen eginkizun egituratzailea krisian sartu da, eta horrekin batera lanean oinarrituriko norberaren nortasuna eraikitzeko aukera hondatu ere.

Lanaren kontzeptu bera, gainera, berriro planteatu eta zabaltzen ari da errealitate berri horiek ere barnean hartu ahal izateko, zenbaitetan indar handiz sortzen baitira, sektore informalaren kasuan gertatzen den bezala. Izan ere, sektore horrek gizarte elkartasunean, boluntariotasunean, ondasun eta zerbitzuen trukerako kooperatiba zirkuluetan oinarrituriko harremanak hartzen ditu bere baitan. Azken batean, lanaren eta aisiaren, ikasketaren eta boluntariotasunaren arteko mugak lausotuz doaz.

Etorkizunari begira bi dira nabarmentzen diren erronka nagusiak: Alde batetik, nola berrelkartu bizitza eta enplegua pertsona guztien dinitatea bermatzen delarik? Bestetik, nola gainditu hurrunduz eta aurrejarriz doazen bi espazio hauen arteko distantzia: bizitzaren espazioa, giza komunitateen inguruan eraikia, eta espazio ekonomikoa, jendetik geroz eta hurrunago eta mundu-mailako eskalan eraikia? Txostenak ekimen eta proposamen konkretu batzu egiten ditu, horien artean lanaren banaketa eta denboraren murriztea, eskubide sozial eta politikoak bermatzen dituen lanerako eskubidearen berreraikuntza, eta hiritarrentzako oinarrizko errenta baten sorrera. Neurri hauek espazio ekonomikoa gizarteratzen lagunduko lukete, lana espazio politiko eta gizarte esparruetara berreskuratuz eta merkatuko logika ekonomikoaren menpekotasunetik askatuz.

## Gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak...

Iñaki Martínez de Luna-k idatzia, Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak ditu aztergai hurrengo txostenak kontutan hartuta aldakuntza horiek ingurune historiko inoiz baino globala-

go batean kokatzen direla. Egindako azterketan, materiazko eta izpirituzko aldaketa-eragileak bereizten dira, beti ere bion arteko harremana eta elkarrekiko eraginaz ohartaraziz. Materiazko bost faktore aztertzen ditu txostenak (demografia, ekonomia, teknologia, ingurugiroa eta bizi-baldintzak) eta izpirituzko beste bost (politika instituzionala, kultura politikoa, hezkuntza, kultura orokorra eta euskara).

Txostenak gaurko euskal gizartearen argazki zorrotza egiten du, argi erakutsiz balioen aldaketa sakona gertatzen ari dela. Gure inguruko gizarteetan bezela, balore kontrajarriak agertzen dira euskal gizartean ere: Balore materialistak eta indibidualistak gora doaz, baina era berean balore postmaterialistak indartuz doaz. Aldaketarik azpimarragarriena, agian, kultura-eredu homogeneo eta askotan bakarreko gizartetik egungo gizarte askotariko edo pluraleraino emandako pausoa dela aipatzen da. Egilearen ustetan Euskal Herriak bidegurutze batean aurkitzen du bere burua gaur: tradizioaren eskutik iritsi zaion kultura eta herri-nortasuna ahal duen neurrian gorde nahi ditu, baina, aldaketen aurrean jarrera irekia mantenduz gero eta oraingo kultura-aniztasuna barneratzean, zenbateraino ahulduko eta desagertuko da aldarrikatu eta gorde nahi duen nortasun jator hura?

Bidegurutze honen aurrean demokraziaren oinarri kulturala aldarrikatzen du Martínez de Luna-k, azpimarratuz gure gizartean dauden kultura-molde ezberdinak gogo onez onartzea dela kultura demokratikorako baldintza funtsezko bat: ezberdina dena, diferente pentsatzen duena errespetatzetik hasten da demokrazia.

## Amaierako hitz batzuk

Euskal gizarte zibilari buruzko eztabaida eta gogoeta beren gaurko mugetatik haratago eramateko Euskal Herriko herritar askok izan duten borondate desinteresatuari esker burutu ahal izan dira sail honetan bilduriko txosten guztiak. Horiek dira hemen bildu den eztabaidaren benetako protagonistak.

Nire eskerrik zintzoenak lan taldeetako koordinatzaile guztiei, beren lan eta ahaleginengatik eta azken bi urteotan estoikoen pazientziaz jasan nautelako: José Allende, Koldo Unceta, Mario Zubiaga, Txus Congil, Iñaki Bárcena, Imanol Zubero eta Arantza Rodríguez. Beneteko atsegina izan da zuekin guztiekin lan egitea. Herrialde bakoitzean buruturiko diagnostikoak ez ziratekeen gertatuko zenbait pertsonaren koordinatzaile lanik gabe: Alberto Frías (Araba), Patxi Larrion (Nafarroa), César Martínez (Bizkaia), Olatz Altuna (Gipuzkoa) eta Eguzki Urteaga (Iparraldea). Nire eskerrik sakonenak guztiei egindako lanagatik. Mila esker, orobat, Eva Elorzari (Kongresuko Idazkaritzan) eta Donostiako Eusko Ikaskuntzako langile guztiei ere.

Bukatzeko, pertsona biri eskertu nahiko nieke era berezi batez beren etengabeko laguntza eta babesa, pertsona horiek funtsezkoak izan baitira Eusko Ikaskuntzak lehen aldiz bere historia luzean euskal gizarte zibilaren gaiari hel diezaion, sail oso bat eskainiz bere XV. Kongresuan. Xabier Alkortaz ari naiz, XV. Kongresuaren Antolaketa Batzordeko Lehendakaria, lehen unetik bere uste osoa azaldu baitzuen proiektu honen bidegarritasunaren alde, 1999ko Eguberri haietan jadanik, eta harrezkero bere laguntza sutsua eskaini baitit, Eusko Ikaskuntzaren baitan ikerketa bide berriak urratu eta, beraren ustez, funtsezkoa den gizarte eztabaida bat sortu nahiz. Eta nola ez, Sabino Ormazabal adiskideaz ere, berak euskal gizarte zibilaz duen ezagutza eta denbora guztian ekarri didan baldintzarik gabeko laguntza izan baitira, seguruenik, nuen eginkizunaren aurrean ez etsitzeko zergatiak, batez ere Euskal Herritik ehundaka kilometrotara bizi naizela eta lan egiten dudala kontuan harturik.

Mikel Insausti Muguruza
3. Saileko arduraduna
“Gizarte zibilaren ahotsa Euskal Herrian”

## PRÓLOGO

Los textos y ponencias preparados para la Sección 3 del Congreso trazan un recorrido apasionante a través de la sociedad civil vasca, y los movimientos sociales y populares que la conforman. Partiendo de un análisis de los ciclos históricos de movilización social en Euskal Herria, se ofrece una fotografía de plena actualidad sobre los retos y dificultades que afronta la sociedad civil vasca en el umbral del nuevo milenio, así como un diagnóstico de los recursos y potencialidades con las que cuenta ésta de cara al futuro.

Las ponencias aquí recogidas no son el resultado de un ejercicio de abstracción teórica, sino la viva voz de los propios actores sociales que trabajan y militan en pro del cambio social, desde ámbitos tales como el ecologismo, la solidaridad internacional, la lucha contra la exclusión social y la pobreza, el derecho al trabajo, el feminismo, el pacifismo, el euskera, la superación del conflicto político, etc. Durante los años 2000-2001, nueve grupos de trabajo han mantenido una serie de encuentros para reflexionar sobre distintos aspectos del cambio social, y el papel de la sociedad civil vasca en el mismo. Las reflexiones y conclusiones de cada grupo de trabajo son la materia prima que han utilizado los coordinadores respectivos para elaborar las ponencias. En total, más de 90 personas han participado en este proceso de debate, lo cual constituye sin duda el mayor activo de esta publicación –al principio de cada ponencia se recoge una lista de participantes en las sesiones de debate.

No cabe duda de que el debate en torno al papel de la sociedad civil es un tema de máxima actualidad. No sólo por la enorme atención mediática que están recibiendo los movimientos antiglobalización, que acuden en comparsa allí donde se reúnen los centros del poder económico mundial. Sino sobre todo por la hipótesis, cada vez más real, de estar entrando en una nueva fase del orden mundial caracterizada por la emergencia de una sociedad civil global, todavía desestructurada, pero que podría ser capaz de equilibrar el enorme poder que están acumulando las empresas multinacionales y el capital transnacional. En este sentido, las manifestaciones de Seattle, Washington, Praga, Gotenburgo y Génova, entre otras, contra el actual modelo económico mundial han supuesto para muchos las primeras voces de alarma de lo que podría ser el despertar de una conciencia ciudadana global y colectiva –algo que sin embargo esta todavía por ver a día de hoy.

Euskal Herria no es ajena al proceso globalizador, y por lo tanto no está a salvo de la homogeneización y uniformización cultural, del consumismo e individualismo rampantes que van imponiéndose en nuestra sociedad, y en nuestro entorno europeo. Ante estas tendencias, la sociedad civil vasca reivindica la autogestión de las comunidades, desde abajo, tanto en el ámbito económico como en el cultural. Apostar por lo local puede realmente ser la mejor aportación a lo global, desde la pluralidad y estando abiertos al mestizaje cultural.

### Los ciclos históricos de la sociedad civil vasca...

Cabe preguntarse, sin embargo, ¿qué entendemos por sociedad civil? ¿Qué o quiénes forman parte de ella y qué o quiénes no? ¿Dónde empieza y dónde terminan sus confines? Iñaki Bárcena sitúa acertadamente con estas preguntas el punto de partida de su recorrido a través de la historia de la sociedad civil en Euskal Herria, concebiendo a ésta como el conjunto de asociaciones y movimientos sociales que, desligados del poder político y del mercado, actúan en la esfera pública vasca. Partiendo del final de la época franquista, destaca tres ciclos de movilización social que sirven para caracterizar a la sociedad civil vasca durante las tres últimas décadas.

El primer ciclo comienza en la década de los años 70, y está marcado por la lucha y movilización ideológica contra el régimen, así como por la aparición pública de un amplio abanico de protestas y movimientos sociales. El ciclo posterior, ya en los años 80, conlleva la adecuación de la sociedad civil a un nuevo escenario, tanto en lo económico (crisis y desmantelamiento industrial) como en lo político (surgimiento de instituciones y autoridades autonómicas). Este ciclo es testigo del debilitamiento de los contenidos ideológicos de la sociedad civil, así como de una creciente especialización dentro de la misma. Finalmente, el tercer ciclo, en la década de los 90, supone una readecuación profunda de la sociedad civil vasca, tanto en lo organizativo como en las formas de acción social. Para algunos, esta nueva fase supone el final de un ciclo movilizador comenzado a mediados de los 70. La nueva situación está caracterizada por una mayor diversidad ideológica y organizativa, el establecimiento de redes y vínculos horizontales, y el esfuerzo y trabajo conjunto entre distintos grupos y movimientos de la sociedad civil.

### ...y la voz de la sociedad civil en Euskal Herria: autodiagnóstico de los actores sociales

La siguiente ponencia comienza allí donde termina el recorrido histórico anterior: elaborando un autodiagnóstico sobre la salud de la que goza la sociedad civil vasca en la actualidad. Partiendo de los diagnósticos realizados en cada *herrialde* por sendos grupos de trabajo, Mario Zubiaga sintetiza la visión que tienen los propios actores sociales de sí mismos, del resto de la sociedad, y de la realidad que tratan de transformar con su activismo social. Para ello resulta fundamental entender los elementos comunes y diferenciales entre los movimientos sociales de cada *herrialde*, lo que ha sido posible gracias a la participación de unas cuarenta personas en cinco grupos de trabajo, uno por *herrialde* (en Iparralde se ha formado un solo grupo). La ponencia destaca como factores

determinantes del dinamismo de la sociedad civil en cada herrialde la diferente implantación del abertzalismo, los distintos grados de adversidad de las situaciones socioeconómicas, y el papel e importancia de las capitales en el marco de cada *herrialde*.

Por otro lado, los propios actores sociales vascos se ven a sí mismos con una actitud crítica ante la realidad social, y comparten objetivos de transformación social en aras de un modelo de convivencia y sociedad alternativos basados en la participación, la solidaridad y la justicia. Uno de los elementos que tienen en común es la convicción de trabajar activamente desde abajo, sin caer en el delegacionismo, y a través de la acción social directa. Destaca la constatación de que aunque la sociedad civil vasca no sea hoy por hoy la más movilizada, sí es sin duda la más rica y diversa de la historia de Euskal Herria. Quizás por ello, la ponencia trata de capturar y reflejar los aspectos ideológicos de la sociedad civil vasca en torno a los modelos de sociedad, economía, política y cultura defendidos desde distintos sectores y ámbitos de la misma. La ponencia revela que existen diferencias entre cómo se plantean estos modelos desde la sociedad civil vasca en cada *herrialde*, pero es patente que son más las convergencias que las divergencias, al menos en cuanto a los principios y valores que deben guiar la transformación económica, social, política y cultural de Euskal Herria se refiere.

Finalmente, pero no por ello menos importante, el diagnóstico de la sociedad civil vasca aborda sin complejos el difícil tema de la acción social, sus modalidades, recursos organizativos y modelos organizacionales que subyacen y hacen posible la movilización social. Llegados a este punto, la ponencia evalúa de forma sistematica las carencias, recursos y potencialidades de los movimientos y grupos que conforman la sociedad civil en Euskal Herria, dejando entrever, y planteando de cara al debate, las principales cuestiones y retos a abordar en el futuro cercano.

### Desde lo global hacia lo sectorial

Las cuatro siguientes ponencias parten de una reflexión específica a un sector o ámbito de la sociedad civil en Euskal Herria. Abordan, respectivamente, la problemática medio ambiental y el movimiento ecologista vasco; la solidaridad internacional y el movimiento de cooperación al desarrollo; los procesos de integración y marginación social; y el futuro del trabajo en Euskal Herria. Centrarse en estos cuatro ámbitos de acción social ha permitido llevar a cabo una reflexión en profundidad a un grupo de personas que participan en movimientos y grupos sociales de toda la geografía vasca, aunque hay que decir que Iparralde ha estado poco representado en algunos grupos. Cada ponencia es el resultado de los debates mantenidos en cuatro grupos de trabajo temáticos, y resumidos por los coordinadores correspondientes.

### Medio ambiente y sociedad civil en Euskal Herria...

Aunque el objeto de reflexión del grupo de trabajo coordinado por José Allende ha sido la cuestión medio ambiental en Euskal Herria y el papel del movimiento ecologista vasco, el debate lo han situado en el marco más amplio del Desarrollo Sostenible. Sin embargo, se reconoce que tanto por parte del "corpus político" como del propio movimiento ambientalista-ecologista, el concepto del Desarrollo Sostenible sigue siendo objeto de confusas y equívocas interpretaciones, que convendría resolver para avanzar en su consecución.

Uno a uno se han ido diseccionando, y sometiendo a intenso debate, los grandes temas que confronta el movimiento ecologista vasco en la conservación del entorno natural y el medio ambiente: la preocupante incapacidad del corpus político e institucional por establecer canales permanentes de diálogo con la sociedad civil organizada; las discrepancias entre las principales "familias" ecologistas vascas; la relativa institucionalización del movimiento ecologista vasco; la gran influencia de la cuestión politica en Euskal Herria sobre la problemática ambiental, y las dificultades que plantea para la clarificación y resolución de los conflictos; y el disperso tratamiento de la cuestión ambiental por parte de las Administraciones Públicas, junto con su escaso papel en la información y concienciación medio ambiental.

Desde este grupo de trabajo formado por gente comprometida con el medio ambiente surge y destaca un clamor central: la necesidad de establecer un proceso de regeneración democrática en clave de participación ciudadana en la toma de decisiones que afecten a los espacios públicos y al medio ambiente en general. Superar la fuerte confrontación existente entre aquellos sectores de la sociedad civil particularmente sensibles a la cuestión ambiental-ecológica y las instituciones demanda novedosas vías de encuentro, diálogo y consenso. Para ello, el grupo propone en la ponencia hacer operativos nuevos instrumentos y cauces de participación. Tan sólo desde una cultura basada en el diálogo, el consenso y la negociación podrá romperse la actual dinámica de confrontación y de diálogo de sordos.

### ...sobre la solidaridad internacional y la cooperación al desarrollo humano y sostenible

¿Existe un modelo de globalización diferente al impuesto por la dictadura de los mercados financieros internacionales y el neoliberalismo? El grupo de trabajo coordinado por Koldo Unceta no tiene dudas al respecto, y aboga en cambio por la globalización de la solidaridad y la universalización de los derechos humanos. La ponencia, brillantemente redactada, se remonta a los orígenes del actual movimiento de solidaridad y cooperación en Euskal Herria para recorrer su evolución hasta el día de hoy, al tiempo que reflexiona sobre las radicales

transformaciones que han experimentado las ideas convencionales de desarrollo, pobreza y desigualdad en las últimas décadas.

El grupo de trabajo plantea en esta ponencia la necesidad de crear una nueva ética de la solidaridad cuyos referentes básicos debieran de ser la apuesta inequívoca por un desarrollo humano y sostenible, los derechos humanos y su protección, y la noción emergente de ciudadania universal. Pero la ponencia va mucho más allá, y hace una autocrítica de los propios movimientos de solidaridad y cooperación, planteando las claves para la superación de los problemas a los que actualmente se enfrentan. Entre ellos cabe destacar el problema de la legitimación del movimiento solidario, en gran medida como consecuencia de la debilidad de su discurso y lo limitado de sus argumentos, como se señala más adelante.

La ponencia también aborda el papel de los distintos actores sociales, la Influencia de las politicas públicas para el desarrollo, los nuevos retos de la solidaridad en el contexto de la globalización, y la proyección e incidencia social del movimiento por la solidaridad. El grupo de trabajo, finalmente, identifica las claves que podrán determinar la futura evolución del movimiento de solidaridad y cooperación al desarrollo en Euskal Herria: la capacidad para afrontar el debate sobre su propia identidad, sobre su independencia respecto a los poderes económicos y políticos, y sobre su habilidad para movilizar los recursos solidarios de la sociedad.

## Procesos de integración y marginación social en Euskal Herria...

En palabras de sus propios autores, esta ponencia nace desde una contradicción insuperable, pues está realizada por personas que aunque trabajan con personas y colectivos “excluidos”, pertenecen al mundo de los “integrados”. Los autores quieren ser honestos al señalar esta contradicción. Ello no impide que esta ponencia pretenda ser un instrumento que facilite un necesario debate en torno a la marginación y exclusión social en Euskal Herria. Para ello, el grupo de trabajo coordinado por Txus Congil parte de un análisis sobre los cambios históricos y estructurales que nos permiten contextualizar los nuevos procesos de desigualdad y exclusión social que se están dando tanto en Euskal Herria como en el conjunto de Europa. El grupo de trabajo reflexiona además sobre las causas y factores favorecedores de estos procesos, avanzando hacia un diagnóstico compartido por diferentes agentes de la propia sociedad civil vasca.

El grupo sostiene que las soluciones al problema de la exclusión social no pueden encontrarse dentro de la lógica económica dominante, el paradigma capitalista, pues es el propio sistema el que genera niveles de exclusión social. Señalan que trabajar contra las desigualdades sociales conlleva un problema político de fondo ya que la precariedad, el paro y la exclusión social no tienen solución en el proceso de globalización, homogeneización y deshumanización que nos están imponiendo los poderes económicos dominantes.

Se plantea así la necesidad de salirse de la lógica del sistema y proponer cambios profundos en los modelos de economía, convivencia y relación entre las personas y los grupos, transformando radicalmente las causas y factores que agravan la exclusión y marginación social. Para lograrlo, se propone especialmente la organización y concienciа de los sectores excluidos, y el compromiso activo de los colectivos populares y de la sociedad civil. Pero la lista de propuestas para profundizar los procesos de integración positivos, activos y críticos no se queda ahí. El grupo propone, ademas, respetar la diversidad, compensar las desigualdades, construir valores, actitudes y comportamientos facilitadores de la integración y disponer de planes de acción social, todo ello con el fin de conseguir que en la sociedad vasca todas y todos seamos ciudadanos libres de pleno derecho.

## ... hacia nuevos horizontes en el futuro del trabajo?

¿Nos encontramos ante el fin de una época donde el trabajo asalariado tradicional es el modelo de trabajo dominante? Tal vez no, responde el grupo de trabajo coordinado por Imanol Zubero y Arantza Rodríguez, pero sí ante un profundo proceso de reorganización del trabajo, donde sobresalen la precarización laboral y la ruptura con la norma social del empleo que históricamente ha servido como elemento básico de integración social. A nivel social, esta transformación radical del trabajo ha llevado a algunos pensadores a vaticinar un futuro en el que coexistirán una economía extraordinariamente dinámica con una sociedad cada vez más frágil e inestable. En el plano individual, el papel vertebrador del trabajo en la construcción del propio destino entra en crisis, enterrando con ello la perspectiva de construir una identidad propia sobre la base del trabajo.

El propio concepto del trabajo, además, está siendo replanteado y ampliado para dar cabida a nuevas realidades que en algunos casos están emergiendo con fuerza, como en el caso del sector informal. Este engloba las relaciones basadas en la solidaridad social, el voluntariado, el trabajo comunitario, los círculos cooperativos de trueque de bienes y servicios, etc. En definitiva, las fronteras entre el trabajo y el ocio, el aprendizaje y el voluntariado, respectivamente, se están difuminando.

El reto de cara al futuro es doble: por un lado, ¿cómo reconciliar vida y empleo de forma que la dignidad de todas las personas permanezca a salvo?. Y por el otro, ¿cómo superar el creciente enfrentamiento entre dos espacios cada vez más alejados entre sí: el espacio de la *vida,* centrado sobre todo en torno a comunidades humanas, y el espacio económico, que está cada vez más globalizado, y por tanto alejado de la gente? La ponencia

enumera una serie de propuestas e iniciativas como la reducción y el reparto del tiempo de trabajo, la reconstrucción de un derecho del trabajo que garantice los derechos sociales y políticos, y la instauración de una renta básica de ciudadanía, entre otras. De llevarse a cabo, estas medidas concretas socializarían el espacio económico, haciendo que las actuales transformaciones de lo que llamamos trabajo dejaran de ser sólo una consecuencia del fundamentalismo del mercado globalizado, en clave neoliberal, y pasaran a ser el resultado de un nuevo contrato social, articulado desde espacios políticos y sociales, y desde la escala local hasta la mundial.

### Cambios sociales y retos del futuro...

La ponencia, escrita por Iñaki Martínez de Luna, trata de los cambios sociales y los retos del futuro, teniendo en cuenta que dichos cambios se producen en el contexto histórico más global que se haya conocido nunca. En este análisis se distinguen factores materiales y factores espirituales del cambio, poniendo de relieve la relación entre ambos y su influencia mutua. La ponencia analiza cinco factores materiales (demografía, economía, tecnología, medio ambiente y condiciones de vida) y otros tantos factores pertenecientes al mundo de las ideas (política institucional, cultura política, educación, cultura general y euskara).

La ponencia realiza un perspicaz retrato de la sociedad vasca actual, mostrando claramente el profundo cambio de valores que se está produciendo en la misma. Como en las sociedades de nuestro entorno, también en la sociedad vasca aparecen valores contrapuestos: los valores materialistas e individualistas están en alza, pero también los valores post-materialistas se están reforzando. Quizás, el cambio más digno de ser resaltado sea el paso de un modelo de sociedad de cultura homogénea y muchas veces única, a la sociedad diversa o plural de hoy en día. Según el autor, el País Vasco actualmente se encuentra en una encrucijada: pretende conservar en lo posible una cultura que viene de la mano de la tradición y su identidad como pueblo, pero en el caso de mantener una postura abierta ante los cambios, hasta qué punto se va a debilitar o desaparecer la identidad propia que reivindica y pretende conservar?

Ante esta encrucijada, Martínez de Luna reivindica la raiz cultural de la democracia, poniendo de relieve que la aceptación de buena voluntad de las diferentes formas de cultura que existen en nuestra sociedad es una condición fundamental para la cultura democrática: que la democracia comienza por respetar lo diferente, a quien piensa diferente.

### Unas palabras finales

Elaborar todas estas ponencias con el esfuerzo que hay detrás de cada una de ellas ha sido sólo posible gracias a la desinteresada voluntad de muchos ciudadanos y ciudadanas de Euskal Herria por llevar el debate y la reflexión sobre la sociedad civil vasca más allá de sus fronteras actuales. Ellos y ellas son los verdaderos protagonistas del debate aquí recogido.

Mi agradecimiento más sincero a todos los coordinadores de los grupos de trabajo por su entrega y esfuerzo, y por haberme aguantado con estoica paciencia durante estos dos últimos años: José Allende, Koldo Unceta, Mario Zubiaga, Txus Congil, Iñaki Barcena, Imanol Zubero y Arantza Rodríguez, ha sido un placer enorme poder trabajar con todos vosotros. Los diagnósticos realizados en cada *herrialde* no habrían sido posibles sin la coordinación por parte de Alberto Frías (Araba), Patxi Larrión (Nafarroa), César Martínez (Bizkaia), Olatz Altuna (Gipuzkoa) y Eguzki Urteaga (Iparralde). Mi más profundo agradecimiento a todos ellos por su labor. Mil gracias también a Eva Elorza (en la Secretaría del Congreso) y a todo el personal de Eusko Ikaskuntza en San Sebastián.

Finalmente, quisiera agradecer de forma muy especial su apoyo y respaldo constantes a dos personas que han sido fundamentales en que Eusko Ikaskuntza aborde por primera vez en su larga historia la temática de la sociedad civil vasca, dedicándole toda una sección en su XV Congreso. Me refiero a Xabier Alkorta, Presidente del Comité Organizador del XV Congreso, quien confió desde el primer momento, allá por la Navidad de 1999, en la viabilidad de este proyecto, y nos ha brindado desde entonces todo su apoyo entusiasta en el empeño de abrir nuevos cauces de investigación en Eusko Ikaskuntza, y generar un debate social que él considera esencial. Y cómo no, a mi amigo Sabino Ormazabal, cuyo conocimiento de la sociedad civil vasca, y apoyo incondicional durante todo este tiempo, fueron seguramente las causas de que no desesperase ante la tarea que tenía delante, sobre todo teniendo en cuenta que vivo y trabajo a cientos de kilómetros de Euskal Herria.

Mikel Insausti Muguruza
Responsable de la Sección 3
"La voz de la sociedad civil en Euskal Herria"